

DUDAPIPE!

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea hobeto ezagutzeko komikia



Egun 570 bazkide inguru ditu Elkarateak eta helburua ahalik eta gehien izatea da. Bazkideak dira Elkarteari babes soziala eta ekonomikoa ematen diotenak.

Helburua euskararen normalizazioa dela esan dugu. Bi ideia azpimarratuko genituzke: batetik, euskara Elgoibarko alor guzietan normaltasun osoz erabilzea eta bestetik, euskaldunok euskara hutsean bizitzeko aukera izatea.



Sortu zutenak eurak izan baziren ere, hasiera beretik 1.400 bazkide biltzea lortu zen. Oso proiektu herrikoia izan zen eta makina bat lagunek egin zuen lan Elkaratearen alde. Diruari dagokionean ere, orduan ez zegoen gaurko dirulaguntzarik eta handik eta hemendik dirua lortzeko izerdi asko ateratakoa da hamaika herritar.



Duela 4 urte arte, Ikastolako Junta Erretoran Elkarateak lekua zeukan, baina harrez gero Ikastolarekiko loturak eten eta autonomia osoarekin funtzionatzen du.



Elkarateak euskaltzaleen bilgunea izan nahi du. Elgoibarren euskararen alde zerbeit egin nahi duen pentsakera eta izakera ezberdinetako jendeari irekia dago, inolako bereizketarik gabe. Erdaldunik ere badago bazkideen artean, nahiz eta jakin Elkaratearen jarduna euskaraz dela.



Ezin dugu ahaztu 1963. urtean bizi zen giroa oso bestelakoa zela, frankismo garaia zen. Euskara eta euskal kulturarekin zerikusia zuen guzitia debekatua eta baztertua zegoen. Egoera honi aurre egiteko sortu zen Elkartea. Lehenengo lorpenen artean ikastola, alfabetatze ikastaroak, eskola ezberdinak, jaialdiak etab. azpimarratuko genituzke.



Horrelako kasuetan, nahi dena baino gehiago ahal dena egiten da, euskararen aldeko lana luzea eta oztopoz beteeta baita. Beraz, Elkarateak lanerako filosofia eta lehenetasunak erabaki behar ditu eta hauen arabera finkatu plangintzak.


**Datorren
astean
jarraituko du**

DUDARIPE!

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen hobeto ezagutzeko komikia



Dirulaguntzak Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituzte. Hiruretatik Udala da gehien laguntzen duena. Elkartearen helburua, ahal den neurrian, autofinantziazioa da eta aurten aurrekontuaren erdia Elkartetik sortutako dirutik lortu da.



Elkartek 90ean etapa berriari ekin zionean, oso argi ikusten zen langile profesionalen beharra. Elkartearen lan-dinamika, langile militante eta profesionalen arteko orekan oinarritu nahi dute. Momentu honetan 7 profesional eta 28 militante daude Elkarteko eguneroko dinamikan inplikaturik.



Elkartearen nahia Udalarekin harremanak sakontzea da, azken finean bi erakundeek erantzukizun bera baitute euskarari dagokionean. Erabileraren aldeko herri mailako plangintza orokorra diseinatu nahi dute Udalarekin batera.



Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) izan zen euskara elkartearen bide berria zabaldu zuena. Arrasateko praktikak eta "Xepetx" en teoriak herri ezberdinetako euskaltzaleak esnarazi zituen. 1990. urtean erabaki zen Elgoibarko Izarra ez desagertzea eta euskararen aldeko dinamika berri honetan Elgoibar ere protagonista izatea.



Alabaina, euskararen alde lan egiteko ez da nahitaez ELGOIBARKO IZARRAN lan egin behar. Bakoitzak berak gustukoaren duen zeregin horretan (ekologia, politika, gazte mugimendua, emakumeak, ...) ez ahaztu hizkuntzaren aukeraketa egiten dela: euskara edo gaztelania. AUKERA ZUREA DA!!